

JARRAIPEN-ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

LANA ETA MENDEKOTASUNA ETA OSO OSASUN-EGOERA LARRIA DUTENEN ZAINKETA BATERATZEA

a - Eszedentzia hartu bada, mendekotasuna duten edo oso osasun egoera larrian dauden senitartekoak zaintzeko Gizarte Segurantzaren kopiatuaren kopia hartu izanaren partearen kopia.

Lanaldia murriztu bada, mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera larrian dagoen senitartekoa zaintzeko Gizarte Segurantzaren datuetan izandako aldaketari buruzko txostenaren kopia (kotizazio-datuen txostena). Txosten horretan agertu behar da ehuneko zenbat murriztu den eskatzailearen ohiko lanaldia, kontratua kontuan hartuta.

Gainera, bi kasuetan, Gizarte Segurantzak emandako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira: batetik, zer kontratu mota den egiaztatzen duena -lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa, eta, kasu horretan, lanaldi osoaren aldean zenbateko ehuneko den -, eta, bestetik, eszedentzian edo lanaldi-murrizketan zenbat denboran egon den egiaztatzen duena.

Eskatzailea Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean kotizatzen ez duen kooperatiba-sozietate bateko bazkide langile edo lan-bazkide bada, kooperatiba horretan bazkide langile edo lan-bazkide dela adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, baita zer kontratu mota duen -lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa, eta, kasu horretan, sektoreko lanaldi osoaren aldean ehuneko zenbat egiten duen lan -, eszedentzian edo lanaldi-murrizketan zenbat denboran egon den, zenbateko lanaldi-murrizketa duen eta eszedentziak edo lanaldi-murrizketak kotizatzen duen sisteman kotizazio-aldaketarik eragin duen. Ziurtagiriak horretarako eskumena duenaren sinadura eta zigilua eduki behar ditu.

b - Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldiari dagokion errenta-aitorpenaren fotokopia, edo, bestela, PFEZean kontuan hartutako diru-sarreraren ziurtagiria, eskumena duen administrazioak egina. Dokumentazio hori egoera hauetakoren batean egonez gero aurkeztu beharko da:

- Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitortzea EAetik kanpo egin bada edo EAetik kanpo egin behar bazen.
- Azken hiru urteetan eskatzailearen nortasun-agirian aldaketaren bat izan bada (AIza izatetik NANA izatera pasatu, izenaren grafia aldatu, abizenen hurrenkera aldatu bada, eta abar).
- Identifikatzeko pasaportearen erabilera bada.

Aurreko eskabideen aldean datu-aldaketarik egon bada, adierazi egin behar da eta agiri bidez egiaztatu.

ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA

Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean Zerbitzua) aurkez daitezke eskabidea.

ZUZENEAN zerbitzuaren bulegoak daude:
01005 Vitoria-Gasteiz, Ramiro Maeztu kalea, 10
48011 Bilbo, Kale Nagusia 85
20004 Donostia, Andia kalea 13

ZUZENEAN, Herritarrentzako Zerbitzuaren informazio-telefonoa: 012

Eskabidea elektronikoki ere aurkez daitezke: www.euskadi/familia

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikulua zehaztutako organoaren aurrean ere aurkez daitezke.

- Zuzentzen zaion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoa, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen erregistro elektronikoa.
- Posta-bulegoetan, araudiz ezarritako eran.
- Espainiak atzerrian dituen diplomaziako ordezkarietan edo kontsultaxeetako bulegoetan.
- Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.